*Lan Harremanak, 2018, 40, 8-9*
*https://doi.org/10.1387/lan-harremanak.20468*

Lan Harremanak
REVISTA DE RELACIONES LABORALES

*ISSN 1575-7048 – eISSN 2444-5819*

# PRESENTACIÓN

2018 ha sido un año pródigo en lo que se refiere a movilizaciones orientadas por reivindicaciones con contenido social en el Estado español y, probablemente, la más significativa de ellas esté siendo la que persigue unas pensiones de jubilación dignas como componente consustancial de lo que entendemos como Estado Social.

Este lugar de preeminencia se debe a diferentes factores, como son la gran masa de población a la que afecta, la extensión territorial, los actores implicados (asociaciones, sindicatos, empresariado, Unión Europea, FMI…) o el elevado nivel de vulnerabilidad que en ese colectivo existe, pero probamente muchos de esos factores pueden ser mejor entendidos si se interpretan como la defensa colectiva del pacto social, intergeneracional e interclases, que ahora se ve en claro riesgo de incumplimiento. Entender unas pensiones dignas como derecho significa también reconocer la existencia del derecho a un cierto nivel de redistribución de la riqueza, de la responsabilidad del Estado en garantizar la suficiencia material de la existencia como forma de evitar el desmembramiento social y, por lo tanto, como de los elementos que legitiman en positivo la existencia del mismo Estado, es decir, cómo satisfacer de los derechos de ciudadanía social en el nuevo contexto caracterizado por las nuevas tecnologías productivas y las nuevas formas de empleo.

Pensiones, redistribución, Estado Social, cohesión social, derechos, dignidad componentes de tipo económico, político, jurídico, ético, sociológico han hecho que al Consejo Editorial de LAN HARREMANAK nos haya parecido pertinente dedicar la sección monográfica del número 40, segundo y último de este año 2018, a reflexionar sobre el sistema de pensiones y en cierta medida del sistema de protección social en el que está inserto.

El primero de los artículos que presentamos ha sido redactado por la doctora Enea Ispizua, de la UPV/EHU, sobre el impacto de la robotización y la digitalización en el mercado de trabajo y en la sostenibilidad de las políticas de protección social actuales. Luis Alejos, sociólogo y pensionista, ejerce el acti-

vismo en defensa del sistema público de pensiones y nos acerca a los orígenes y trayectoria del movimiento de pensionistas desde un punto de vista sociológico. Un tercer texto corresponde a Arántzazu Vicente, Catedrática de Derecho del Trabajo y de la Seguridad Social de la Universidad Jaume I, aprecia críticamente la emergencia de un nuevo paradigma en la articulación del sistema de pensiones, las reformas legales realizadas que abocan a la realización de ese modelo, e identifica al poder financiero como principal beneficiario del nuevo paradigma. Ampliando el foco, el doctor Ángel Elías, Decano de la Facultad de Relaciones Laborales y Trabajo social de la UPV/EHU, aboga por un reparto justo de la riqueza y del tiempo de trabajo, aspectos sobre los que el avance tecnológico ha incidido sobremanera, fijándose para ello en elementos como la reducción de la jornada laboral o el establecimiento de una renta básica universal. Un «Observatorio para el reparto justo de la riqueza» ayudaría, para el autor, a pergeñar un mapa de las desigualdades actuales.

En la sección abierta del presente número, pero en realidad marcando una transición suave con la temática de la sección monográfica, Julen Bollain del Instituto Hegoa de la UPV/EHU y Daniel Raventós, de la Universidad de Barcelona, ofrecen una revisión de los programas de rentas mínimas y contraponen los datos obtenidos sobre su eficacia y limitaciones al modelo de renta básica incondicional. Un segundo artículo de Carla Aguilar e Ignasi Brunet, de la Universidad Rovira i Virgili, aborda desde una perspectiva teórica las construcciones de género en la industria, la primacía de las cualificaciones laborales entendidas como masculinas frente a las femeninas, sin desconsiderar la clase social y diferentes masculinidades. El último artículo tiene como autores Rafael Altuna, de Mondragon Unibertsitatea y a Eguzki Urteaga, de la UPV/EHU, analizan las bases legitimantes —el soporte cultural—, y su imbricación con los elementos institucionales de la Experiencia Cooperativa de Mondragón.

Por último, como nuevo director de LAN HARREMANAK me gustaría agradecer públicamente, en mi nombre y en el del Consejo editorial, la gran labor realizada durante varios años por Edurne López como directora de esta revista. Intentaremos progresar a partir de su excelente legado.

Por otro lado, animamos a autoras y autores a que nos hagan llegar sus manuscritos con propuestas de artículos a través del aplicativo OJS, siguiendo el enlace siguiente: http://www.ehu.eus/ojs/index.php/Lan_Harremanak/information/authors.

Esperamos que el presente número 40 de LAN HARREMANAK-Revista de Relaciones Laborales, sea de su agrado.

Luis Belaustegi

Director

https://doi.org/10.1387/lan-harremanak.20468

*Lan Harremanak, 2018, 40, 10-11*
*https://doi.org/10.1387/lan-harremanak.20468*

Lan
REVISTA DE RELACIONES LABORALES
Harremanak

*ISSN 1575-7048 – eISSN 2444-5819*

# AURKEZPENA

Estatu espainiarrean 2018a urte oparoa izan da eduki sozialeko eskabideak zabaltzeko mobilizazioen arloan eta, seguruenik, horien artean entzute handikoena erretiro pentsio duinak eskatzen dituena izan da, jakinik gizarte estatutzat ulertzen dugunaren osagai funtsezkoa direla.

Lehen mailako kokagune horrek baditu bai bere zergatiak, adibidez, inplikaturiko biztanleri kopuru handia, lurralde hedapena, tartean dauden eragileak (elkarteak, sindikatuak, enpresariak, Europar Batasuna, NDF…) edo pentsiodunen ahultasun maila altua, baina, seguru asko, horietako faktore asko hobe ulertuko dira pentsiodunen mugimendua gizarte hitzarmenaren defentsa kolektibo bezala, belaunaldi eta klase arteko hitzarmenaren alde egitea bezala, haustura arriskuan ikusten baitute hitzarmen hori. Pentsio duina eskubide bezala ikusteak beste idea bat dakar: aberastasunaren birbanaketa maila bat eskubidea dela eta Estatuaren erantzukizuna dela bizitzaren nahikotasuna bermatzea; beste era betera esanda, Estatuaren papera ere bada ekoizpen teknologia berri eta enplegu era berrien eraginaren menpeko dagoen gizarte testuinguru honetan nola bete gizarte hiritartasun eskubideak.

Pentsioak, birbanaketa, Gizarte Estatua, gizarte kohesioa, eskubideak, duintasuna… mota ekonomiko, politiko, juridiko, etiko, soziologikoko… osagaiak jokoan daudela eta LAN HARREMANAK aldizkariko Argitalpen Batzordeari iruditu zaio 40. Zenbaki hau pentsioen gaineko hausnarketa egitea eta, neurri batean, hauek txeratuta dauden gizarte babes sistema zabalagoari buruz ere.

UPV/EHUko Enea Ispizua doktoreak idatzi du lehen artikulua eta aritu da robotizazio eta digitalizazioaren eraginei buruz lan merkatuan, hala nola egungo gizarte babeserako politikak. Luis Alejos, soziologoa eta pentsioduna, pentsio sistema publikoaren aldeko aktibismotik, pentsionisten mugimenduaren jatorri eta bilakaerari buruz hitz egingo digu. Hirugarren artikulu batean Arantzazu Vicentek, Jaume I-ko Lan Zuzenbide eta Gizarte Segurantzako Katedraduna, era kritikoan ikusten du pentsio sistema egituratzeko sortzen ari den paradigma be-

rria, egiten diren lege erreformek eredu berrira horretaratzen baitute, eta finantza boterea identifikatzen du eredu berriaren irabazle nagusi bezala. Ikusmira zabalduz, Angel Elias, UPV/EHUko Lan Harremanen eta Gizarte Langintza Fakultateko Dekanoa, lan denbora eta aberastasunaren banaketa doiaren aldeko apustua egiten du, gogoan izanik osagai horietan aurrerakada teknologikoak izan duen eragin sendoa, eta lan orduen murrizketa edo oinarrizko unibertsalaren ezarpenari buruzko hausnarketa eginez.

Atal irekian, baina egia esan aurreko atalarekiko trantsizio leuna eginez, Julen Bollain-ek, UPV/EHUko Hegoa institutukoa eta Daniel Raventos-ek, Bartzelonako Unibertsitatekoa, gutxieneko errenten programen azterketa eskaintzen digute eta beren eraginkortasuna eta mugen gaineko datuak alderatzen dituzte baldintza gabeko oinarrizko errentaren ereduarekin. Rovira i Virgili Unibertsitateko Carla Aguilar-ek eta Ignasi Brunet-ek industrian aurkitu daitezkeen jenero eraketak aztertzen dituzte hurbilketa teoriko batetik, salatuz lanean kualifikazio hobetsienak maskulinotzat hartzen direla femeninoekin kontrajarrita, autoreek gizarte klase eta maskulinitate desberdinak ere analisian sartzen dituztelarik. Azken artikuluaren autoreak Mondragon Unibertsitateko Rafael Altuna eta UPV/EHUko Eguzki Urteaga dira, eta bere lanean Arrasateko Esperientzia Kooperatiboko oinarri legitimatzaileak —euskarri kulturala— eta hauen osagai instituzionalekiko lotura aztertzen dute.

Bestalde, LAN HARREMANAK aldizkariko zuzendari berria naizenez gero, publikoki nahi dut eskertu, nire eta Argitalpen Batzordearen izenean, urte hauetan Edurne Lopezek egondako lan bikaina aldizkari zuzendari bezala. Berak utzitako aparteko ondaretik abiatuta aurrera egiten saiatuko gara.

Bestalde, autoreak zuzpertu nahi ditugu euren eskuizkribuak helarazi diezaizkiguten, OJS aplikazioaren bitartez, ondoko estekari jarraituz: http://www.ehu.eus/ojs/index.php/Lan_Harremanak/information/authors

Aurrean duzun LAN HARREMANAKen 40. zenbakia zure gustukoa izango dela espero dugu.

Luis Belaustegi

Zuzendaria

https://doi.org/10.1387/lan-harremanak.20468